

A D U B I O S

EGILEA

MARCELINO DE SANTIAGO
(KUKAS)

ITZULTZAILEA

- 1. TESTUA Joan den aspaldian, Unibertsoa sortu aurretik, Ezereza baino ez zen...
13'' Den-dena Ezereza zen; ezerezak dena betetzen zuen. ✓

- 2. TESTUA Ezerezean gorputzik gabeko izaki batzuk bizi ziren, Inor-ez izenekoak.
1'23'' Inor-ez horiek ezerezez osatuak ziren, ezerezaren dimentsio batean bizi baitziren. ✓

- 3. TESTUA Inor-ez guztiak batu ziren eta izaki bakar bat bilakatu; beharbada haiek guztiak bat baino ez direlako, auskalo!
2'32'' ✓

- 4. TESTUA Edo agian nahaste-borraste handi bat ziren, ez dakit.
3'06'' ✓

- 5. TESTUA Inor-ez horiek espazio hutsean gauzak zirelako itxurak egiten zituzten, baina haien irudimenak sortuak ziren soilik, zeren haiek, ezerezean bizi izanik, ez zuten ezeren premiarik.
22'' ✓

- 6. TESTUA Uf, sentitu ohi zuten asperdura ez zen makala! Ez atzera ez aurrera joan eta inon ere ez egotea aspergarri samarra da.
43'' ✓

- 7. TESTUA -Bada jadanik denborabako eternitate azkengabe bat honela gaudela... bada garaia asma dezagun zerbait jolasteko, esan zuen inor-ezek.
 -Baina zer, galdetu zuten beste inor-ezek.....
 -Ez dakit, edozer, baina monotonia amaigabe honekin bukatu beharra dago.
1'24'' ✓

- 8. TESTUA △ -Badakit! zerbait egiten ari garelako itxurak egin ditzakegu, esan zuen Inoiz-ezek.
 ○ -Isilik egon, Inoiz-ez, hori aspaldidanik egin dugu eta asper-asper eginda gaude, esan zuen Ez-ek
1'57'' ✓

9. TESTUA

-Jakina! Ezerezetik ihes egin dezakegu beste norabait, erabaki zuen Inor-ezek.
 -Baina Ezerezaz bestaldean are gutxiago dago, Ezek.
 -Gainera hor dago kaiola honetatik ateratzea eragozten digun hesia. Hemen geratu beharko dugu betiko, esan zuen Ezerezek.
 -Ba nik saiatu nahi dut, Ezereza zaharra da oso eta akatsen bat izango du nonbait, Inor-ezek

55^u

M

10. TESTUA

20ⁿ
21ⁿ

-Lo kuluxka bat egitera noa, oso nekatuta nago eta, xuxurlatu zuen Inor-ezek..
 Lo goxo batek hartu zuen Inor-ez.

T

11. TESTUA

34ⁿ

Baina aitaren batean jauzi egin zuen ikaraturik:
 -Aizue, zerbait gertatzen ari zait, oi hu gin zuen Inor-ezek.
 -Nola gerta al dakizuke ezer, ezerez bazara?
 -Ez, benetan; zerbait gertatzen ari zait, zerbait badela iruditzen zait. Ezerezaz gain denaz betetako, gauzez betetako leku bat dagoela.
 -Eta nola dakizu gauzak direla ez badituzu inoiz ikusi?
 -Bihozkada bat da.

12. TESTUA

422ⁿ

Inor-ez berriro lokartu zen... eta isiltasun amaigabeez jositako bel~~tasun~~ eskergan zehar sentitu eta ikusteko ahalmenez, ia oharkabean Inor-ezek ametsak asmatu zituen.

13. TESTUA

150ⁿ

Ametsetan Inor-ezek argia topatu zuen.
 -Ederra benetan! Lastima iluntasunaren aurkakoa baino ez izatea, kexatu zen Inor-ez.

M

14. TESTUA

7ⁿ

Baina laster gauzatxo txiki bat agertu zen...
 -Zer da hori? Inor-ezek totelka, iluntasuna atzera ote dator?.....
 Inor-ez dardarka ari zen, haren ametsak ideia irrigarri bat zirudien, edo agian haren irudimenak ezin zuen besterik eskaini.....
 -Bat-batean gauzatxo txiki hura argian ibiltzen hasi zen, hasieran astiro, pixkat arinago gero.
 -Zoragarria! oldoztu zuen Inor-ezek, Zerbait gertatzen ari da azkenik!
 -Eta haren harridura areagotu egin zen puntu haren ondoan beste batzuk agertu zirenean... Denak jauzika ari ziren argian zehar, eta aldi berean Inor-ezen poza handiagotuz joan zen.

15. TESTUA

Ustekabeen zuzen bat azaldu zen...
Gero beste bat...
Bi zuzenak elkartu ziren beren mutur batetik angelu bilakatur...
Eta era horretan bere ametsean Inor-ezek zer eta bidimentsioa asmatu zuen, eta berehala hasi zen handitzen Planimetriaren mundua eta irudi geometrikoak bilakatzen...

16. TESTUA

Triangeluak (hirukiak) bilakatu ziren laukiak bihurtzeraino... laukiak pentagono... hauek hexagono... azkenik irudirik perfektuena osatu arte: zirkunferentzia, berau baitzen munduko kultura guztiaren jabea.

17. TESTUA

Bizitza ederra zen bigarren dimentsioan, ezustekorik gabea, eta orden sozialak ez zuen akatsik... zoriontasun gogaikarrian bizi ziren elkarrekin triangeluak, laukiak, laukizuzenak, erronboak, erronboideak, trapezioak, trapezoideak eta beste hainbat irudi.

18. TESTUA

Baina egun batez triangelu txiki bat planimetriaren kanpoko mugara hurbildu zen eta zalantzan hasi...
Pentagono batengana hurreratu eta galdetu zion:
-Pentagono, zer dago planoaz bestaldean?
-Ez bete burua horrelako heresiekin, gaztetxo, hori inork ere ez zekik.
Erantzunak ez zuen pozik laga eta triangelua oktogonoari hurbildu eta galdetu zion...
-Oktogono, ba al dago besterik planoaren bestaldean?
-Zisma bat eragin nahi duk, gaztetxo? Bazter itzazu hausnarketa horiek eta gogoan har hire lekua gizartean.
Erantzunek haren jakinmina ase ez zutenez, zirkunferentziarengana joatea erabaki zuen, hango izaki guztietan perfektuena izanik, haren galderarentzako erantzun egokia izango zuelakoan.

19. TESTUA

1'24"

-Zirkunferentzia, barkatu traba egiten badizut; badakit oso irudi lanpetua zarela, baina zalantza bat daukat eta erantzuna aurkitu behar dut; bestela ezinegonak jango nau.

-Mintza hakit, triangelutxo hori, zailagoak galderak, zuhurragoak erantzunak, mintza hakit.

-Zer dago gure dimentsioaz haratago?

-Txantxetan ari haiz mukixu? Hoa bihurrikeriak egitera lagunekin... jakintsuenek ere ez ditek erantzuna aurkitu...

Utz itzak gogoeta horiek eta hoa hire adineko irudiekin jolastera.

Triangelua burumakur alendu zen, zerbait berri topatzeko aukera izango ote zuen hausnartuz... Bilakaera zerbait handia izango zen haren jendearentzat...

20. TESTUA

2'40"

Egunak joan, egunak etorri eta ez zen ezer gertatzen.

21. TESTUA

3"

Triangeluak ez zuen bere obsesioa ahaztu... zelatan ari zen planimetriaren alde guztietatik haratagoko zerbait aurkitu nahian...

Gauzak horrela, egun batean beste mundu batera eramaten zuen zulo bat topatu zuen.

Bere kideengana abiatu zen korrika eta oihuka:

-Lagunok, beste mundu batera daraman zirrikitu bat topatu dut!...

-Zer gertatu da?, galdetzen zioten elkarri irudi geometrikoek, inguratzen zutelarik.

-Lagunok, mundu garatuago bat aurkitu dut Planimetriatik kanpo, bi dimentsioetatik harantzago... badago beste dimentsio bat gehiago duen espazio bat...

Hirugarren dimentsioa duzue!

22. TESTUA

6"

-Anatema, heresea alaena!, oihuka ari ziren irudi lauak.

23. TESTUA

23"

Laster erdipurdiko jendea gaitziturik agintariengana abiatu zen salaketa egitera... eta hauek atxilotzea agindu zuten.

24. TESTUA

51"

-Zertan ari zara, ero hori? bakea eta orden soziala hautsi nahi dituzu, ala?, itaundu zuen zirkungerentzia gorenak.

25. TESTUA 10^o Erdipurdikoek zigorrik handiena eskatu zuten...
Nola joka dezake inork gizarteko bizikidetasunak ezarri arauetatik kanpo?, galdetzen zioten beren buruari... Jenioek bakarrik egin dezakete hori, baina jenioak hildakoan halakotzen dira, lehenago arriskutsuak dira, hortaz gure gizartetik kanporatu behar dira...
Joan bitez beste norabait beren andromenekin batera!...

26. TESTUA 14^o -Nola jasan horrenbeste birao, horrenbeste gaiztakeria? Zigor eredugarria eman behar zaio, erabaki zuen epaile gorenak.

27. TESTUA 2^o -Onena litzateke planotik ezabatzea! esan zuten erdipurdikoek.
-Gure gizartetik betiko erbesteratuta zaude, izan zen zirkunferentziaren epai gogorra, bere sekantea jaitsez.

28. TESTUA 6^o Triangelua, astiro, inorantz ere ez abiatu zen, goibel eta malenkoniatsu, ezintasunak bere gorputz txikia astintzen ziolarik...

29. TESTUA 34^o Zalantzakor, triangelua irteerako zulo arrasean gelditu zen...
-Eta gutarrak zuzen baleude?, itzuli eta barkamena eskatzea badaukat oraindik.

30. TESTUA 57^o Behin betikoa izango zen urrats atzeraezina egin behar ote zuen duda-mudatan zegoen...

31. TESTUA 18^o Bat-batean bera bezalako lau triangelu ikusi zituen...
Zirudenez, haren mundu eta honen arteko aldea ez zen hain handia...
Beharbada ez zuen merezi horrenbeste sufrimenduk pairatzea... Oker egongo ote zen bere azterketetan, dena berdina zelarik?

32. TESTUA 50^o Halako batean lau triangeluek beren aldeak elkartu zituzten eta tetraedro eder bat osatu...
Ez zuen sinesterik!, lehenengoz egiaztatu ahal izan zituen bere teoriak... Han zeuden irudiak, prisma, tetraedroa, kuboak... alde guztietatik ikus zitezkeen eta amaigabea zirudien espazioko edozein puntutatik ere bai.

33. TESTUA

1'41" Dardar batean zegoen, pixka bat beldurrez eta pixka bat zirraraz...

Tupustean, guztiz oharkabe, salto bat egin eta hirugarren dimentsioan barneratu zen.

34. TESTUA

2'18"

Konplexuz beterik zegoen ikustean baitzuen aurreko aldea bai baina soslaiarik ez zuea inoiz izango...
Pajal n

35. TESTUA

2'33"

Bere arazoa ahazturik, postu egin zen bera baitzen bere mundukoan artean mirari hura ikusia zuen lehena, alegia bigarren dimentsioa zein errazki bilakatzen zen hirugarren dimentsio.

Gogoetaka zegoela ez zen ohartu berarekin estrapo zuen piramide jostagarriaz.

-Ai, oihu egin zuen piramideak, mamu bat!

-Ez naiz mamua, esan zuen triangeluak, zuenaren aurreko dimentsio bateko izaki bat nauzu, Planimetriatik nator.

36. TESTUA

6"

Zerbait ikaraturik piramidea garrasika hasi zen:

-Anai-arrebok, mamu bat topatu berri dut!

-Munstro halakoa!

-Bekokia bai baina soslaiarik ez duen izaki bat!

-Erabat laua den zomorro bat!

-Eraso diezaiogun!... Garbitu beharko dugu!

Baliteke izurrite bat izatea, oihu egiten zuten haserre espazio geometrikoek.

Triangelu txikiak ez zekien non gorde bere burua, haren gorputza dardarka ari zen, arnasestuka saiatu zen soslaiaz jartzen baina ez zeukan soslaiarik.

37. TESTUA

3"

-Ixo!

Trumoi antzeko ahotsaz agertu zenean esferak beste guztiak isilarazi zituen...

Lotsarik ez duzue izaki desberdin bat horrela iraintzen duzuenean.

-Izurrite horrek gu guztiok akaba gaitzake, baina, esan zuen zilindroak.

-Ez du inor akabatuko, ez izan beldurrik... neuk konponduko dut arazoa...

38. TESTUA

50"

Antzinako forma zahar hori behatu ondoren, bere tailerrera eraman zuen konponbide bat bilatzeko ASMOZ...

39. TESTUA 1'50" Denbora aurrera joan zen eta esfera jakintsuak neke handiekin lortu zuen hiru dimentsioko gorputz bat egitea triangeluarentzat

40. TESTUA 2'50" Haren itxura bitxi samarra zen, beste irudi batzuen adabakiez egina baitzuen, lauki bat dela, erronbo bat dela, konponketa bat han, beste bat hemen... Ez zen oso polita baina diseinu orijinala zen gero...
Berdin da, kontua zen triangela hiru dimentsiokoa zela senti zitekeela.

41. TESTUA 19" Hasieran traketsa zen eta bolumetrikoa izaten ikasi behar zuenez, mina hartzen zuen bere gorputz berri osoan...

42. TESTUA 1'02" Espazio geometrikoak jolas eta txantxekin ikasketa errazten ahalegindu ziren.

43. TESTUA 3'22" Horrela eman zuen denbora, bere kideen errespetua bereganatuz eta bere gorputz itxuratxarrekoa landuz...

44. TESTUA 3'40" -Aizu, galdetu zion piramide txiki alai batek...
-Zer dago hirugarren dimentsioaz haratago?...
Irribarrea agertu zitzaion aurpegian, infinitorantz burua altxaturik, mundu berriei buruz hasi zen pentsatzen, dimentsio berriez, eta aldi berean bere lehen herri zaharra, laua alegia, gogora ekarri zuen.

45. TESTUA 4'22" -Nire herrikoekin itzuli beharra daukat, nola aurrera daitekeen erakusteko. - - - -
-Zu izango banintz birritan pentsatuko nuke, esan zion zirkunferentziak, garen horretara heltzeko neke handiak jasan behar izan zenituen, eta irudi lauak oso burugogorak dira bilakaerari dagokionez. Daukatena nahiko eta sobera dute.
-Ez dut burukoia izan nahi, nahi dutena egin dezatela, baina aurrera egiteko aukera eman behar diedala uste dut, eboluzio loalditik atera daitezen. *HORI NAHI BARDU, HOLA ETAN DADILA*

46. TESTUA 5'14" Gorputz geometriko berria bilakaturik, triangela bere aurreko dimentsiora itzuli zen.

M/

47. TESTUA 1'6" Bigarren dimentsioan sartzeko arazoak kontaezinak ziren, zeren orain bere aldeetarik bat besterik ezin baitzuen ezarri, gainontzekoak itzal lainotsuak baino ez ziren.

48. TESTUA 1'3" Bigarren dimentsioan osorik sartzeko borrokan ari zelarik talde bat irudi lau ikusi zuen...
-Herkideok, berri on bat dakarkizuet!
Irudi guztiak beldurrak airean ihesi joan ziren deabrua bera ikusi izan balute bezala.

49. TESTUA 1'02" -Ez izan beldurrik, neu naiz, aspaldi urrundu zenuten triangelu irrigarri hura... Begira, oraindik gordetzen dut nire itxura zaharraren zerbait...

50. TESTUA 1'28" Isiltasun dorpe batek planimetria osoa hartu zuen.
Ezin zuten sinetsi, zergatik itzuli behar zuen erbestera bidalia zutena... eta gainera orain, bere espeziari ez zegokion gorputz harekin...
Ikara handi batek hartu zituen denak eta nahasmena erabatekoa izan zen.

51. TESTUA 2'07" Erdipurdikokoak azpijana egiten hasi ziren berriro, zirkunferentziarekin bildu ziren, matematikoki perfektua den orden soziala asaldatzen zuen hura nola akabatu erabakitzeke.

52. TESTUA 2'28" -Adiskideok, erakutsiko dizuet nola heldu hirugarren dimentsiora, erraza da oso...
Bere azalpenak amaitzen utzi gabe, erdipurdikoetarik batek zuzen bat hartu eta haren bihotz penatuan sartzen saiatu zen... Besteak kolpeka hasi ziren kupidarik gabe...

53. TESTUA 3'10" Abantzu indargabeturik, irteerako zulorantz abiatu zen eta bertan sarturik hirugarren dimentsiora itzuli zen...

54. TESTUA 3'40" Aldi berean zirkunferentziak zirrikitu hori itxeko agindu zuen, berriro zabaltzea ezinezkoa izan zedin.